

Jakes Bortairu

EUSKAL KONFEDERAZIOKO KIDEA

Zertan gaude?

Pasa den urriaren 24an Kontseiluak eta Euskal Konfederazioak elkarrekin antolaturiko DEIADAR mobilizazioa arrakastatsua izan da jendearen parte-hartzearen aldetik, lortutako atxikimenduen aldetik nahiz tendentzia politiko desberdinetako hautetsien presentziaren aldetik ere. Azken urteetako eboluzio eta aurrepausoaren argazkia izan da nolabait. Gisa berean hizkuntzaren inguruko auzian galderak pausatu eta eztabaida piztu da: zer da ofizialtasuna? Zein estatutu euskararentzat? Frantsesarekin berdintasuna eskatzea zilegia dea? Eta abar.

Baionako eta Okzitandarren manifestaldiaren ondorioz zenbait diputatu edo senadore, besteak beste, eta lehen aldikoz Jean Grenet, Euskal Herriko ordezkaria, gobernuari galdezka ari zaizkio, lege proiektua zertan den ofizialki jakiteko. Momentuz erantzunik ez. Marka txarra, kontutan hartzen badugu Kultura Ministeritzako ordezkari batek urriaren 16an errandakoa, hots lurralde hizkuntzak Konstituzioan aipatzea nahikoa zela horien babes-teko eta lege bat ez zela haien garpenerako molde egokiena.

Auzia ontsalaz, laster trenkatuko da. Lege proiektua baztertuta bada, orduan zer? Lege proposamenaren bidea gelditzean da, erran nahi baitu eztabaida, diputatu



DANI BLANCO

batzuen eskutik eramatea Parlamentura. Dirudienez Britainian eta Alsazian parlamentari batzuk horretarako prestatzen hasi dira. Lurralde hizkuntzen alde ari diren herri mugimenduek elkarrekin adostu printzipioak eta egindako lana ez dira debaldeztan izanen beraz, lege proposamena edukiz betetzeko. Halere bide horrek aukera mugatuak ditu azken hiru hamarkadetan behin baino gehiagotan porrot egin baitu ikusi ahal izan dugun bezala.

Bitartean, Euskal Herrian orain arte bezala, lege babesik gabe aurrera egiten jarraitu beharko da herri atxikimendua eta hautetsi gero eta gehiagoren borondatea azkartuz. DEIADAR kanpainan zehar bilduriko indarrak eta sostenguak baliatu beharko dituzte euskaltzaileek urrats berriak emateko. Jendartean eragite lana jarraitzeaz gain, hor daude Kontseiluak jorrazten dituen ildo sozialeko ekimenak, akordio sozio-politiko zabala lotzeko parada ederra badugu. Horrek hizkuntza politika indartzeko balio beharko luke, helburu, epe, nahiz baliabideetan. Halaber, herrietan eta herri elkargoetan orain arte gutti landu den euskararen presentzia segurtatu beharko da, tokiko administrazioarekin euskarazko komunikazioa erreal bihurtzeko. ▢

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Apalean, telefunkaren gainean egoten zen irakurgai. "Joxemaritxo nola kantatu behar dira bertsook?" galdetuko zizun amak. Aitonarengandik jasotakoak buruan dantzan, neurria topatu arte. Fraileak komertzial saiatuak ziren atez atekotan elizak zituen bezero gatibuak bisitatzen, galtzerdirik gabeko sandaliak oinetako. Eta argazkiak albumetan nola, aldizkariak metatu, kronologikoki antolatu eta auzoko inprentan enkoaderantzera eramango genituen geroaren sarbide. Ia-ia irakurle adina erosle zituen orduan. Aroa aldatu zaigu. Oraingoak bere modernoan ez du bezero gatiburik,

Sukaldeko

sukaldeko eroslerik, atez ateko fraile komertzialik. Oraingoak mundu normalizatuan dihardu profesionalki, irakurleak erosle bilakatu ezinik subentzioen gatibu. Sukaldea galdu du, salako liburutegia irabaziz, inoiz irekitzen ez diren plazoka erositako bildumen ondoan kieto, kolorezko kutxez apaingarri. PCa du lehiakor, telefonoa fraile eta operatzailea eliza. Aroa aldatu zaio, orain ez du zuzendaritzarako bere hizkuntzan lan egingo ez duen urruneko kazetari tituluduna bilatu beharrik argia ikusteko. Mundu normalizatuan bizi da. Klandestinitatean kieto, irakurleak erosle noiz bilakatu zain subentzioa gari. ▢